

KONTUAN HARTZEKOAK

- Aitorpenak aurkezteko epea:
2007ko apirilaren 18tik ekainaren 25era
- Hitzordua eskatzeko eta kontsultak egiteko telefonoa:
902 100 040
- Interneten argibideak:
www.gipuzkoa.net/ogasuna

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO AUKERAK ESKORIATZAN

EUSKADIKO KUTXA	943 71 43 97
KUTXA	943 03 70 04
Arrobi aholkularitza	943 53 38 88

ESKORIATZAKO DATUAK (2006ko ERRENTA)

- Aitorpena egin zuten herritarrek _____ **2.426**
- Foru Ogasunarekin harremanak euskaraz izan daitezela eskatu zuten eskoriatzarrak _____ **128 (%5,28)**

NORA BEGIRA ZAUDE?



ERRENTA AITORPENA Egizu euskaraz!

Badakizu Errenta aitorpena euskaraz egiteko aukera duzula? Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba? Zeuri dagokizu, egizu.



eskoriatza ko
udala



ERRENTA
RENTA

2007

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA

Zergadun batzuei etxera bidaliko zaizue proposamena, Foru Ogasunak eskura daukan informazioan oinarritutakoa. Proposamena ontzat ematen baduzu, bi bide daude onartzeko: telefonoz edo Internet bidez.

ΞgizU

Euskaraz: proposamena eta eskutitza ele bietan jasoko duzu. Telefonoa erabiliz gero, euskaraz hitz egin eta Ogasuneko langileak euskaraz beteko du aitorpena; gainera, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezzen nahi ote duzun galdetuko dizute. Internetez eginez gero, euskarazko aukera erabil dezakezu.

MEKANIZATUA

Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da; eskoriatzarrok Bergaran egin dezakegu. Horretarako hitzordua eskatu behar da, telefonoz edo Internetez.

ΞgizU

Euskaraz: telefonoak euskara aukeratzeko bidea emango dizu, baita Interneteko atariak ere. Bulegoan euskaraz hitz egiten baduzu, langileak euskaraz beteko du zure aitorpena; hala ere, ziur egoteko, adieraz iezaiozu aitorpena euskaraz egiteko borondatea. Bukatzeko, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezzen nahi ote duzun galdetuko dizute. Galdetzen ez badizute, zeuk esan.

TELEMATIKOA

Baimenduta dauden erabiltzaileek har dezakete bide hau, eta batez ere finantza-erakundeek eta aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dute. Gune horietara gure sarreren, gastuen, kenkarien eta abarren frogagiriak eraman eta bertako langileak arduratzen dira aitorpena egin eta bidaltzeaz. Bezero jakin batzuentzako zerbitzua izan ohi da.

ΞgizU

Euskaraz: eskuorri honen atze aldean zehazten dizugu Eskoriatzan aitorpena euskaraz non egin dezakezun. Bertara zoazenean espresuki adierazi beharko duzu aitorpena euskaraz egiteko borondatea.

NORK BERE BIDETIK

Inprimakia, CD-Roma edo Internet bidez, bakoitzak bere aitorpena egin dezake. Estankoetan, Ogasuneko bulegoetan edo Interneten eskura daitezke euskarriak.

ΞgizU

Euskaraz: Inprimakiak ele bietan daude.

NORA
BEGIRA
ZAUDE?

ΞgizU euskaraz!

